

3. MAILA

Azterketa idatzia

A EREDUA

Deiturak: _____

Izena: _____ NA: _____

Azterketa idatziak bi zati izango ditu

- Irakurmena
- Idazmena

Azterketa idatzia etenik gabe egingo da.

2 ordu eta 30 minutu izango dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

Azterketa idatzia	ARIKETA	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Proposatutako denbora
	Irakurmena	10	20 puntu	1 h inguru
	Idazmena	15	30 puntu	1 h 30 min inguru
	Guztira	25	50 puntu	2 h 30 minutu

IRAKURMENA

Egitekoa

Irakurri testua eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena
Idatzi bakoitzari dagokion **letra** beheko laukietan

1. testua

Eliteen bestaldean, mundua

Botereak herrien eta jendeen artean ezarritako mugez hausnartu du Itxaro Bordak *Ezer gabe hobe* nobela politikoan

«Mendeetako harreman koloniala berdintasun fiktizio batean galdekatzeko asmoz», europarrak afrikarren eta indigena amerikarren maila bereberetan paratu ditu Itxaro Bordak (Baiona, 1959) idatzi duen nobela berria, *Ezer gabe hobe* eleberri politikoan.

Sigma du izena Bordaren nobelako pertsonaia nagusiak. Europarra da, baionarra, zehazki, «baina munduko edozein tokitakoa izan zitekeen». Klandestinoki muga bi igaro beharko ditu: *Sangatte* izenekoa lehenik, lagun afrikar batekin Kongotik Londreserako bidaia eginez; eta *Chalco* deritzona bestetik, mexikar saldo batekin Hego Amerika utzi, eta Kalifornian barruratuz.

Bi ardatz horien inguruan egituratu du nobela Bordak, «mundua nola doan kontatzeko». Erreportaje tankera izan dezakeen arren, *Ezer gabe hobe* literatura-lana baino ez dela nabarmendu du idazleak: «Fikzioa da arras».

Nolanahi ere, errealitatea izan du abiaburu kontakizuna eratzerakoan, «erakutsi nahi dudalako Europan zein Ameriketara immigranteak legez gaizki tratatuagatik ere jendemugetimenduak aitzina doazela. Horrela osatzen dela mundua, eta garatzen, puzean, eta entzuten dela lokatzen ateratzea xede duen jendetza musika polifoniko eta koloretsua».

Bordaren ustez, «bidaia horren kariatara europarrak ohartzen dira pentsamendu bakunak kutsatuak daudela, itsuak direla nolabait». Halaxe gertatuko zaio Sigmari ere. Orrialdez orrialde, neoliberalismoa gorroto duela ohartuko da. «Laurden baten alde gainerako hirurak sakrifikatzen direla». Ondorio garbia aterako du: pobrezia dela munduko ondasunik partekatuenena, eta ustezko askatasunen atzean gutxi batzuek gehiengo baten aurka darabilten zapalkuntza baizik ez dagoela.

Izan ere, sinetsarazi digutenari kontra eginez, Europan mugak egon badaudela erakusteko gogo zuen Bordak, «nahiz eta ez den nobela didaktikoa, giroak, usainak, musikak, amodiozko istorioak, paisaiak gozarazteko baino», ohartarazi du. Idazlearen esanetan, «Europan muga orokorrak desagertu dira, baina, alor horretan, jendetasunean bezala, mugak atomizatu dira eta jada edozein karrika-bazterretan oztopo bat kuskatzen ahal da, kontrolatuak eta beharrez atxilotuak izan gaitzke. Are gehiago estigmatizatu populuetaoak baldin bagara».

Edozelan ere, muga guztiak gainditzeko eraiki direla sinetsita dago Borda, errealitateak irrealitateari gaina hartzen diolako azkenean. «Munduaren zatitxo aberatsenak beste zati handiagoari gerla deklaratu dio, gobernatzaileen eliteak salbu guztiak hondatzen ari den ontzi bereberetan gabilta. Sangatte eta Chalco asko daude lurrean zehar, anitzetan etxetik ez hain urrun. Eta G8ko estatuak obratzen duten zapalkuntza ez da sotilagoa, baina badakite denbora kontatua zaiela eta laster esklabo gisa tratatzen duten horiekin konpondu beharko dutela».

Bordaren iritziz, «bidean pairatzen duenak etxean entzerraturik dagoenak baino askoz gehiago ikasten du. Bamako zein Kabulerako kanporatzeak espektakuluaren osagarriak dira, baina, oinarrian, kanporatuen ondorengoek dute irabaziko».

Ezer gabe hobe nobelan, ezer salatzea bainoago, duela urte bi Mexikora eginiko bidaian «ikasi eta dastatutakoak» jaso nahi izan ditu Bordak. Horretarako, pertsonaien izen, nortasun eta generoak ezabatu ditu, «gramatikaren mugak inarrosiz».

Literatura-lan «erabat politikoa» ondu duela nabarmendu du. «Gramatikaren tratamendua politikoa da. Amodiozko istorioak ere politikoak dira. Politika komentatzen eta hausnartzen da».

Irune Berro
Berria, 2009-12-02

1. testua

Adibidea:

0. Non kokatzen du kolonialismoa Itxaro Bordak bere nobelan?

- a. Kolonialismo berria aipatzen du eta Europan kokatzen du.*
- b. Mendeetan atzera egin eta afrikarren eta amerikarren kolonizazio garaian.*
- c. Herrialde pobreetan kokatzen du, pobrezia eta esklaboak dauden lekuetan.*
- d. Kolonialismoa munduko edozein leku, une eta garaitan kokatzen du nobelan.*

1. Zein da *Sigma* pertsonaiak bere bidaiatik ateratzen duen ondorioa?

- a. Munduko ondasunen artean pobrezia dela partekatu beharko litzatekeena.
- b. Munduaren hiru laurdenek zapaltzen dituztela gainerakoak.
- c. Munduan askatasuna partekatzen dela, baina ez ondasunak.
- d. Ustez aske bizi direnek ez dutela ikusten multzo handienaren egoera.

2. Zer gertatu da Europan mugekin Itxaro Bordaren ustez?

- a. Berak ere sinetsi egin du muga guztiak desagertu direla.
- b. Mugak ez direla inoiz gainditzen ikusten ez direlako.
- c. Muga handiak ez baina bestelakoak nonahi ditugula.
- d. Jendeak desagerrarazi dituela mugak.

3. Munduko “elitearen” egoera zein da idazlearen ustez?

- a. Ez du aurreikusten etorkizunean zer gerta litekeen.
- b. Hondoratzen ari den ontzitik kanpo dauden bakarrak dira.
- c. Hondoratzen ari den ontzian partaide dira.
- d. Eliteak salbatuko ditu ontzian hondoratzeko zorian daudenak .

4. Egileak zer nolako liburua idatzi du?

- a. Politikarien bizipenak oinarri dituen liburua idatzi du.
- b. Mezu politikoa baztertuta, bidaia-erreportajea sortu du.
- c. Bere bidaian ikusitakoa zehatz-mehatz biltzen duen nobela idatzi du.
- d. Bere bidaiako bizipenak mezu politikoa duen nobela bilakatu ditu.

0-a	1-	2-	3-	4-
-----	----	----	----	----

IRAKURMENA

Egitekoa

Irakurri testua eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena
Idatzi bakoitzari dagokion **letra** beheko laukietan

2. testua

Euskal ekintzaileak: Martin Lopez de Isasi eibartarra

XVI. mendeko Euskal Herriaz pentsatzean, zalantza sortu ohi zaigu: garai hartako herritarrek ba ote zekiten zeuden lur apurrak landu, arrantzan egin eta burdina eraldatzeaz gainera, beste ezer egiten? Uste dugu ondo kostata biziraun zutela urte haietan. Ez al digute sinistarazi gure lurrian bizi izan den modernotasun bakarria XIX. mendearen amaierako industrializazioaren ondoriozkoa izan zela?

Nik galdera txanponaren beste aldeari begiratuta egin ohi dut: nola liteke herri atzeratu eta isolatua izan, eta aldi berean garai hartako itsasgizonik trebeenak sortu, itsasontzi eraginkorrenak egin, Gaztelako monarkiari idazkari onenak eskaini, eta Mediterraneo, Europa eta Ameriketako merkatuetan arrakastaz jardutea? Legazpi, Elkano edo Idiakezarrak ez ziren kasualitatez agertu.

Historian barrena, Euskal Herrian estuasunek aukera bikainak sorrarazi dituzte. Garia eta ardoa urriak zirenez –eta kontuan izan behar da elikagai horiek ezinbestekoak zirela Erregimen Zaharrean bizirauteko–, zer egin pentsatu beharra izan zuten garai hartakoek, goseak dakarren zorrotzasun horrekin, eta dirua harripeatan ere lortu behar izan zuten, bistan denez: lurrian aztarrika egin eta azpiko meategiak ustiatu zituzten. Euskal Herrian zegoen baliabide natural bakarretako bat burdina-mea zen, eta horregatik garatu zen metal horri loturiko industria.

Antzeko arrazoiengatik sartu ziren euskaldunak itsasoko ur handietan. Patuak itsasoa jarri zien alboan, beldur-ikara eragiten zuen belaze kontrolaezina. Itsasoei aurre egitea arrisku handiko apustua zen, baina neurria hartuz gero, aukera paregabea ere bai gure herria arrantzaren eta itsaso bidezko garraioaren punta-puntako lekuetan kokatzeko.

Burdina, itsasontziak eta arrantza: plataforma ezin hobea merkatua bilatzeari ekiteko. Baina negozioetan aritzeko jende prestua behar zen, baliabide ekonomikoak eta baita merkataritzako tradizioa ere. Testuinguru horretan bizi izan zen gure protagonista, Martin Lopez de Isasi eibartarra, XVI. mendearen bigarren erdian.

Martin Lopez de Isasi merkatarien artean nabarmen ageri da, ordezkari trebe gisa, Gaztelako nobleek ofizio hori gutxietsi zuten garaian, Euskal Herrian aitoren seme izan eta lan egitea ez baitziren bateraezinak, osagarriak baizik. Eibarko familia boteretsu bateko semea, errenten kontura bizi izateko aukera izan zuen, baina euskal nobleziako kideak ez zetozen bat penintsulako pentsaerarekin, europarrarekin baizik: gizartean lekua egiteko, ez zuten pribilegioetan oinarritu nahi; ahalegina, lana eta ekimena ziren horretarako bidea.

Berak eta berak bezala diru-sarrerak osasuntsu zituzten beste hainbat euskaldunek, enpresarioen ikuspegia izanik, proposamen arriskutsuak egin zituzten, baina onuragarriak izan

zitezkeenak, ondo hezurmamitu eta bide onetik egiten bazuten aurrera. Baina ez zen eroa ezta ergela ere: merkataritzak indar handia hartu zuen garaian, euskal gizarte osoa bereganatu zuen mugimenduko beste kide bat izan zen; hain zuzen ere, ordura arte Erdi Aroan ohorea aitzakia hartuta borrokan eman zuten familia boteretsuetako eta bandoen arteko liskarretan indarra galdu zuten horietako beste kide bat baino ez. Aurrerantzean, merkataritzan jardungo zuten, ez borrokan.

Sistemaren baldintzengatik, merkatariek merkataritzako elkarte handietan bildu beharra zeukaten, dirua eta ahalegina inbertitzeko. Batzuek burdinaren ekoizleekin negoziatzen zuten, beste batzuek merkatalgaia Sevillara edo Indietara bidean jartzen zuten, eta azkenik, zenbaitek salmentan ziharduten, konfiantzazko ordezkarien bitartez. Isasiri dagokionez, hiru osaba Ameriketako merkaturan aritutakoak zituen, eta beraz, arloa ez zitzaion arrotza gertatu, aurrekoek zabaldua baitzuten arrastoa.

Bestalde, garraioaren esparrua kontrolatzen ere saiatu zen Isasi. Horretarako, itsasontzi handi eta ondo egindakoak behar zituen, eta lan hori konpainiako kide bihurtuko ziren enpresarioekin lankidetzan egin zuen. Dena den, ontzi horiek beste eginkizun batzuetarako ere erabili zituzten: batzuk Gaztelako artilea Flandriara eramateko, beste batzuk Ternuan arrantzan egiteko. Felipe II.aren interesak ere bete behar izan zituzten, eta Gaztelako erregeak eskatuta, Euskal Herrian egindako armak batetik bestera eraman eta kortsarioen arriskuei egin behar izan zien aurre.

Martin Lopez de Isasi euskal enpresario handien eredu izan zen, eta garai hartan indarra hartu zuten negozio guztietan jardun zuen; Euskal Herriarentzat gogoangarria izandako garai baten erakusle dela esan liteke.

Jose Antonio Azpiazu
Administrazioa Euskaraz, 63.zk, 2009 urtarrila (moldatua)

2. testua

Adibidea:

0. *Zer uste du idazleak XVI. mendeko Euskal Herriaz?*

- a. Herri atzeratua eta barrura bildutakoa zela.*
- b. Ikuspegi bakarrarekin ezin dela orduko historia ulertu.*
- c. Aurrera egiteko ekimen handirik gabeko herria zela.*
- d. Orduan hasi zela industrializazioa, ez XIX. mendean.*

5. Zerk bultzatu zituen euskaldunak meagintzara?

- a. Erregimen Zaharrean burdingintzak zuen garrantziak.
- b. Behar-beharrezkoak zituzten landa-produktuak ereiteko dirua lortu beharrak.
- c. Nekazaritzarako lur egokirik ezak, eta, oro har, beharrianak.
- d. Itsaso bidezko garraioaren eta arrantzaren garapenak.

6. Martin López de Isasi nor zen?

- a. Merkataritzan irabazitako diruari esker aitoren seme izatera heldu zen eibartarra.
- b. Eibarko familia aberats baten baitan jaioa, baina aitoren seme izan ez zena.
- c. Errenten kontura eta bestelako lanik egin gabe bizi izan zen noble-familia bateko semea.
- d. Sortzez noble eibartarra izan bazen ere, lanari uko egin ez ziona.

7. Nolakoak ziren XVI. mendearen bigarren erdialdeko euskal nobleak?
- Erdi Arotik zetorkien tradizioari eusten zieten: enpresario eta merkatari bikainak ziren.
 - Ohorearen izenean, elkarren artean borrokan ibiltzen ziren, bandoetan bildurik.
 - Errenten kontura bizi ziren, dirua zen haien ezaugarri nagusia, ez pribilegioak.
 - Europako aitoren semeen ildotik, ez zioten, inondik inora ere, muzin egiten lanari.
8. Zer esaten da testuan XVI. mendeko euskal merkatariet buruz?
- Erdi Aroko borroketatik indartsu atera zirela lan berrietarako, batez ere ontzigintzan eta garraioan.
 - Negozio-bide berriak urratu nahian, euskal merkatariet euren ondasunak arriskatu zituztela alferrik.
 - Elkarteetan indarrak batu ezik, nekez izango zutela arrakastarik jarduera berri hartan.
 - Ameriketarik burdina-mea ekartzeko asmoz ekin ziotela merkataritzari.
9. Zergatik behar zituen Isasik itsasontzi handi eta ondo eginak?
- Itsasoaz bestaldeko merkatu berriak aurkitu zituelako: Flandria eta Ternua.
 - Haien esku zeudelako merkataritzaren garraioaren bide nagusiak .
 - Euskal Herrian egindako merkatalgaiak itsasoz baino ezin zirelako garraiatu.
 - Ameriketarako eta Flandriarako bidean jarritako merkantzia kortsarioen erasoetatik babestu beharra zuelako.
10. Testu hau irakurrita, zer ondorio atera daiteke?
- Euskaldunok estualdiei zor diegu, neurri handi batean, ekonomia-ekimen berriei heldu izana.
 - XVI. mendeko merkatariak beren kabuz aritu ziren, elkarren artean indarrak bildu gabe.
 - XVI. mendean merkataritzaren izan zen euskaldunen bizibide nagusia.
 - Baliabide natural ugarietako esker garai oparoa izan zen XVI. mendean euskaldunentzat.

0-b	5-	6-	7-	8-	9-	10-
-----	----	----	----	----	----	-----

IRAKURMENA

Egitekoa

Testuinguruan duten esanahia kontuan harturik, markatuta dauden hitz horien **baliokidea** aukeratu behar duzu.

Idatzi bakoitzari dagokion **letra** beheko laukietan

3. testua

Oinordetza

Ganbara zahar batetik hartutako **paper-mutur (1)** ziztrin bat eman zioten behin ikasle **buruargi (2)** bati. Mutila hasita zegoen latinaren eta grezieraren sekretu nagusiak sakon ezagutzen, eta ez zion begirada hotz **handiuste (3)** bat beste deus eskaini paper-mutur **apalari (4)**. Bat-batean, **ordea (5)**, begiak laztu zitzaizkion: **ahitzen (6)** ari ziren bere hizkuntza eta bere mundua zeuden paper-mutur hartan! Auzoz auzo, baserriz baserri, ganbaraz ganbara, kutxaz kutxa, sutondo sutondo hasi zen gaztea, mundu erdi **galdu (7)** hartako oihartzun eta paperklase oro biltzeko zoroak emanda. Bizitza osoko lana hartu zuen mundu hartako oihartzun ia galduak berriro **hauspotzen (8)**, eta mendi-kaietako, baserritarren eta marinelen, bakegaraietako eta gerra **latzetako (9)**, emigranteen eta bertan gelditutakoen poz-oinazeen doinuak eta errimak biltzen.

Bizitza osoa herri baten mapa hauspotzen aritu eta gero, labirinto bizigarriagoa utzi digu **oinordetzan (10)**.

Anjel Lertxundi. Berria, 2009-01-06 (moldatua)

3. testua

	A	B	C	D
1	paper-sorta	paper-azal	paper-mota	paper-zati
2	prestu	azkar	buruarin	arduratsu
3	harroputz	azaleko	ezkutuko	mizkin
4	xelebreari	preziatuari	zatarrari	xumeari
5	osterantzean	halaber	berriz	bestalde
6	bilakatzen	hedatzen	errotzen	urritzen
7	garatu	artatu	ahaztu	berpiztu
8	miatzen	arnasberritzen	aditzen	iraungitzen
9	galduetako	sasoieta	lazgarrietako	zantzueta
10	herentzian	zorretan	oinpean	azkenean

1-	2-	3-	4-	5-	6-	7-	8-	9-	10-
----	----	----	----	----	----	----	----	----	-----

IRAKURMENA

Egitekoa

Testuinguruan duten esanahia kontuan harturik, zenbakiekin markatuta dauden hutsuneetarako **hitz edo esaldi zati egokia** aukeratu behar duzu.

Idatzi bakoitzari dagokion **letra** beheko laukietan

4. testua

Betikoa, krisian?

Familia berba latinez *zerbitzaria* edo *esklaboa* esateko erabiltzen zen *famulus* hitzetik dator. Denborarekin, baina, hainbat esangura hartu ditu; baina, askoren ustez,1..... lotura hori inoiz ez du galdu. Minerva Donald Madrilgo Unibertsitateko soziologia irakaslearen arabera, «besteak beste, ondasunen partekatze moduan ulertu izan da familia, baita helduen egonkortasun psikikoaren babes moduan ere». Egun, oro har, etxe bereko bizikidetzari2..... soziologoek familia. Azalpen horrek ateak zabalik uzten dizkie interpretazio berriei. Izan ere, «ezkontzatik bereizi egiten da familia». Hala, gaur arte «erabilgarria» izan den definizioa bazter gelditzen ari da European. Donalden ustez, familia tradizionala krisialdian dago3.....

Heriotza eta jaiotza tasak gutxitzeak, antisorgailuen erabilerak, bizi itxaropena handitzeak... aldaketak eragin dituzte. Ez dira bat-bateko aldaketak izan; baina, aditu askoren ustean, aldaketa horiek izan dira, neurri handi batean, familiaren oinarria eta osaera aldatu4..... Familia tradizionalaren ustezko krisia ez dute, Donalden ustez, familia eredu berriek sustatu, ezta garai bateko familia buruaren figura5..... ere. Haren ustez, «egun gizarte baten oinarri moduan ikusten ez delako galdu du familia tradizionalak indarra». Beste zenbait6....., hala ere, familia eredu berriak jotzen dituzte tradizionalaren «gainbeheraren» erantzule.

.....7....., eta krisia egon ala ez, begi-bistakoa da familia tradizionala ez dagoela garairik onenean. Familia eredu berriak, ostera, gero eta ugariagoak dira: izatezko bikoteak, familia homoparentalak eta transexualen familiak, bigarren eta hirugarren ezkontzako familiak, adoptatutako haurrak dituzten familiak, lagundutako ernalkuntza bidez jaiotako haurren familiak...

Bada familiaren etorkizuna eredu berriek8..... bioteknologiak baldintzatuko duela uste duenik ere. «Ingeniaritza genetikoak eta bioteknologiak biziaren jatorria eta aitatasunaren sistema bera alda dezakete. Arriskua hain handia da, ezen inork ezin baitezake iragar etorkizunean zein9..... familiaren osaera» dio horren harira Donald irakasleak. Hala, izan da neskalaguna ernaltzeko hildako baten hazia erabili duenik, menopausia iritsi zaien emakumeak ama izan dira, amama biologikoen sabelean hazi dira ama antzuen sabelean hazi ezin izan diren haurrak.... «Inork ez daki etorkizunean zer gertatuko den. Araurik10....., dena da posible».

Ainara Argoitia, *Berria*, 2003/11/12 (moldatua)

4. testua

1.
a. aginpideko
b. aginpidearenganako
c. aginpidearekiko
d. aginpidearen
2.
a. deritzo
b. deritze
c. deritzete
d. deritzote
3.
a. 60. hamarkadatatik aurrera
b. 60ko hamarkada ezkerro
c. 60. hamarkada eta gero
d. 60ko hamarkada geroztik
4.
a. dutenek
b. dutenak
c. dituenak
d. dituztenak
5.
a. lausotu izanak
b. lausotuagatik
c. lausotu dela
d. lausotu delako
6.
a. soziologo
b. soziologoek
c. soziologoak
d. soziologok
7.
a. Arrazoen gorabehera
b. Arrazoiak arrazoi
c. Arrazoiak edozein direla ere
d. Arrazoiak zein diren arabera
8.
a. ordeztu
b. eziz
c. barik
d. baizik
9.
a. izango denik
b. izan den
c. izango den
d. izan zitekeen
10.
a. ez ezik
b. ezean
c. ez badaude
d. ezen

1-	2-	3-	4-	5-	6-	7-	8-	9-	10-
----	----	----	----	----	----	----	----	----	-----

IDAZMENA

Egitekoa:

Jarraian, artikulua bat idazteko proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu (kontuan hartu zer eskatzen den).

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 300 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
 - eskatutakoari erantzun diozun
 - testu egokia osatu duzun
 - euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili duzun
- Idazteko boligrafoa erabili (zirriborroetarako arkatza erabil dezakezu).

**Zirriborroetarako orria
(orri hau ez da zuzenduko)**

1. gaia

Zer irabazi dugu telebista digitalarekin?

Etorkizuna piztu da. Itzalaldi analogikoak eta lurreko telebista digitalak aukera berriak ireki dituzte telebista ikusteko eta telebistaren merkatua ustiatzeko. Digitalizazioaren eskutik, at-joka ditugu goi-definizioa, hiru dimentsioko telebista, telebista interaktiboa... Aldaketak egin dira, baina benetako aldaketarik izan da?

Testua kontuan hartuta, herriko kultur etxeak argitaratzen duen aldizkarirako **iritzi-artikulua** idatzi.

Idatzi horretan, gaiaren aurrean duzun iritzia azalduko duzu eta berau arrazoitu.

Gutxienez, **300 hitz** idatzi behar dituzu.

Irakurri duzun pasarteari buruz iritzia emateko eta gaia garatzeko, ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Aldaketak etxeetan (LTD hargailuak, antenak, telebista berriak...)
- Eskaintza berriak (kate gehiago, kalitate hobea, hiru dimentsiotako telebista, programa hobeak...)
- Telebista interaktiboa (saioretan parte hartzea, erosketak egitea...)
- Telebista ikusteko ohitura berriak (interneten, grabatutako programak, gaikako telebista, kirolak, filmak...)
- Etxekoekin/lagunekin ikustetik bakarka ikustera?
- Publizitatea eta diru-iturriak lehen eta orain



2. gaia

Gizentasuna: kontuan hartzeko arazoa

Adituek diotenez, loditasunari eta gehiegizko pisuari buruzko zifrak gero eta kezkarriagoak dira gure artean. Izan ere, pisu gehiegikeria gaixotasun kronikotzat har dezakegu, gure herrialdeetan epidemia bihurtzeraino ia-ia. Espezialistek abisatu dutenez, ez dago hain urruti gizenen herrialde bihurtuko garen eguna.

Testua kontuan hartuta, herriko kultur etxeak argitaratzen duen aldizkarirako **iritzi-artikulua** idatzi.

Idatzi horretan, gaiaren aurrean duzun iritzia azalduko duzu eta berau arrazoit.

Gutxienez, **300 hitz** idatzi behar dituzu.

Irakurri duzun pasarteari buruz iritzia emateko eta gaia garatzeko, ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Gurearen moduko gizarte batean hiritarren %20 gizentzat jo daiteke
- Ume eta gazteen artean, hirutik batek gehiegizko pisua du
- Gizentzeko arrazoiak: genetika, sedentarismoa, gaixotasunak, botikak...
- Gehiegizko pisua, itxura kontua baino zerbait gehiago
- Irtenbideak: ohiturak, dietak, ariketa fisikoa, botikak, kirurgia...
- Egoera hobetzea: norbanakoaren aukera ala osasun arloko erakundeen erantzukizuna?



Gaiaren izenburua:

5

10

15

20

25 _____

30 _____

35 _____

40 _____

45 _____

50 _____

55 _____

60 _____

65 _____

70 _____

HIRUGARREN MAILAKO AZTERKETA

ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

Proba idatzia 50 Gainditzeko 25	Irakurmena	gutxienez 10	20 puntu	35 min inguru
	Idazmena	gutxienez 15	30 puntu	60 min inguru
Ahozko proba 50 Gainditzeko 25	Entzumena	gutxienez 10	20 puntu	25 min inguru
	Mintzamena	gutxienez 15	30 puntu	10 min inguru
GUZTIRA		gutxienez 50	100 puntu	

Agiria eskuratzeko gutxienez 50 puntu lortu beharko dituzu, 25 proba bakoitzean.
 Agiria eskuratzeko, berriz, ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) gai izatea.
 Eraitza bakarra emango da: **GAI/EZ GAI**.

Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

EGITEKOA BETE. Komunikazio-egoera eta diskurtso-elementuak. Erregistroa. Edukia. Hitz kopurua.

KOHERENTZIA ETA KOHESIOA. Ideien eta egituren arteko lotura. Testuaren egituratzea. Paragrafoen antolamendua.

GRAMATIKA ETA LEXIKOAREN ABERASTASUNA ETA ZUZENTASUNA. Gramatika-egiturak. Lexikoa. Joskera. Ortografia.